

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2025eko ekaina

Sarrerek % 9,8ko igoera eta ostatu-gauak % 8,7koa izan dute Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2025eko ekainean

Eguneko batez besteko tarifa (ADR) 138,3 eurokoa izan da 2025eko ekainean, hots, aurreko urtean baino % 8 handiagoa

Eustaten datuen arabera, **2025eko ekainean** Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 9,8ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak, berriz, % 8,7koa, 2024ko ekainarekin alderatuta. Zehazki, 368.409 sarrera eta 729.870 ostatu-gau izan dira.

Sarreraren % 52,4 eta ostatu-gauen % 54,3 atzerritar jatorriko pertsonenak izan dira. Kasu horietan, sarrerek % 11,0ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak % 10,2koa. Estatuko pertsonen sarreraren zein ostatu-gauen kopuruak gora egin du urtetik urtera (% 8,6 eta % 6,9, hurrenez hurren).

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. Ekaina 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	2024/06
EUSKAL AE	368.409	9,8	729.870	8,7	1,98	2,00
Estatukoak	175.431	8,6	333.261	6,9	1,90	1,93
Atzerritarrak	192.978	11,0	396.609	10,2	2,06	2,07
Araba/Álava	45.573	1,9	95.045	4,3	2,09	2,04
Estatukoak	30.162	1,7	62.098	1,8	2,06	2,06
Atzerritarrak	15.411	2,1	32.947	9,5	2,14	1,99
Vitoria-Gasteiz	33.392	0,9	74.284	3,2	2,22	2,18
Bizkaia	167.392	10,7	316.907	9,6	1,89	1,91
Estatukoak	82.265	10,2	151.835	9,0	1,85	1,87
Atzerritarrak	85.127	11,2	165.072	10,1	1,94	1,96
Bilbao	110.842	11,2	212.210	10,4	1,91	1,93
Gipuzkoa	155.444	11,5	317.918	9,1	2,05	2,09
Estatukoak	63.004	10,1	119.328	7,0	1,89	1,95
Atzerritarrak	92.440	12,5	198.590	10,4	2,15	2,19
Donostia / San Sebastian	94.952	7,4	206.904	6,5	2,18	2,20

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Uztailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Arabak, 45.573 sarrera eta 95.045 ostatu-gau erregistratu dira, hots, aurreko urtean baino % 1,9 eta % 4,3 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, sarrerek % 10,7ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak % 9,6koa. Guztira, 167.392 sarrera eta 316.907 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 155.444 sarrera erregistratu dira 2025eko ekainean, hau da, 2024ko ekainean baino % 11,5 gehiago. Ostatu-gauak, berriz, 317.918 izan dira, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 9,1 gehiago.

Hiriburuei dagokienez, sarreraren kopuruak % 0,9ko igoera izan du Gasteizen, % 7,4koa Donostian eta % 11,2koa Bilbon, aurreko urteko ekainarekin alderatuta. Ostatu-gauen kasuan, Gasteizen % 3,2ko igoera izan dute, Donostian % 6,5ekoa eta Bilbon % 10,4koa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia¹ 1,98 egunekoa izan da 2025eko ekainean, hau da, aurreko urteko hilabete berekoa baino txikixeagoa (2,00 egun aurreko urteko hilabete berean).

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Ekaina 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/06	p.p. *	2025/06	p.p. *	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	65,1	3,2	79,4	4,0	138,33	8,0	109,76	13,7
Araba/Álava	58,2	1,9	76,4	4,9	98,16	7,3	75,00	14,6
Vitoria-Gasteiz	58,3	1,4	80,4	5,4	82,38	12,9	66,24	20,9
Bizkaia	62,8	3,3	78,8	3,5	125,20	5,4	98,63	10,2
Bilbao	66,8	2,6	83,2	2,4	140,11	5,2	116,51	8,3
Gipuzkoa	70,2	3,6	81,0	4,2	165,58	10,3	134,10	16,4
Donostia / San Sebastian	76,0	4,8	85,8	4,9	208,38	12,7	178,75	19,5

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Uztailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta

2025eko ekainean, Euskal AE osoko okupazio-maila % 65,1era iritsi da plazen arabera neurtuta, eta % 79,4ra gelen arabera neurtuta. 2024ko ekainarekin alderatuta, portzentajezko 3,2 puntuko igoera gertatu da plazen kasuan, eta 4,0 puntukoa gelen kasuan.

Euskal AEn, errentagarritasuna, eguneko batez besteko tarifaren edo ADRaren bidez neurtzen dena ("logela bakarrik" erregimeneko gela bikoitz bainugeladunari aplikatuta) 138,3 eurokoa izan da 2025eko ekainean. Beraz, % 8,0ko igoera gertatu da aurreko urteko ekainarekin alderatuta. ADRa 165,6 eurora iritsi da Gipuzkoan, 125,2 eurora Bizkaian eta 98,2 eurora Araban. Hiriburuei dagokienez, aldeak handiagoak izan dira. Izan ere, ADRa 208,4 eurokoa izan da Donostian, 140,1 eurokoa Bilbon, eta 82,4 eurokoa Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, RevPar edo gela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 109,8 eurokoak izan dira 2025eko ekainean, hau da, aurreko urteko hilabete berean lortutakoak baino % 13,7 handiagoak.

Urteko metatua

Urtea hasi zenetik metatutako aldian (**2025eko urtarrila-ekaina**), aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, sarrerek % 4,6ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak % 5,4koa. Sei hilabeteko aldi horretan, batez besteko egonaldia 1,93 egunekoa izan da 2025ean; aurreko urteko aldi metatu berean, berriz, 1,91 egunekoa izan zen.

¹ Batez besteko egonaldiak ez du adierazten Euskal AEra etortzen diren bidaiarien egonaldiaren guztizko iraupena, gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopurua baizik.

Urteko lehen sei hilabeteetan, okupazio-maila % 54,0koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 65,7koa gelen arabera neurtuta. Hortaz, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, portzentajezko 1,0 eta 0,9 puntuko igoera gertatu da, hurrenez hurren.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHaren erantzun-tasa **% 92,7koa** izan da 2025eko ekainean. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

[Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak](#)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62